DOLUAK DOLU

Doinua: Beste bateko inularretan
Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)



Maddalen Arzallus Antia
(1990 Hendaia, Lapurdi)

1 Bizitza hain da eskuzabala, hain ditu altxor **anitzak**...
Ematen ditu amets ederrak eta leku **sinesgaitzak**,
esperientziak eta pertsonak gure arimen **zurkaitzak***...
Bainan* emanen dizun guzia kenduko dizu **bizitzak**. *(bis)*

2 Aldatzen dira gure harremanak, joaten dira **lagunak**
eta ez gara bihozgabeak edo **ahalguzidunak**;
dolu ttikiak bizi ditugu sakonak eta **ilunak**,
bakoitzak gure denborarekin gaindituko **ditugunak**. *(bis)*

3 Aldatzen dira bizilekuak, hondatzen dira **ametsak**,
eraikitako zimendu batzu jotzen ditu azken **beltzak**.
Aldaketa bat zaila da bainan garapen bide da, **behintzat**...
Heriotzaren hoztasun bera du aldaketarik **ezak**. *(bis)*

4 Oroitzapenen zurrunbiloan gure minari **lotzean**,
doluak ere goxotasuna badu bere **bihotzean**.
Bainan ez ahantz ematen duzun urrats ttiki **bakoitzean**,
bizitza beti aurrean dela eta zilo* bat **atzean**. *(bis)*

5 Zilo horretan eror zaitezke bainan ez zaitela **kezka**,
zure baitarik ezin baduzu, hasi laguntza **galdezka**.
Doluak dolu eta minak min bizitza beti da **festa**,
sufrimendua maitasunaren miraila* bat baizik **ez da**. *(bis)*

* ***zurkaitzak*** = *euskarriak, sostenguak* ***miraila*** = *ispilu*
zilo = *zulo*